

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zambranako udalerrietan hiri hondakinak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasaren errolda jendaurrean jartzeko epea aldatzea eta tasa kobratzeko epea aldatzea, 2020ko ekitaldiko lehen seihilekoari dagokiona

2020ko martxoaren 10ean, eta lehendakaritzaren ebazpenaren bidez, onetsi egin ziren Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zambranako hiri hondakinaren bilketa tasaren erroldak, 2020ko lehen seihilekoari dagozkionak, eta horiek jendaurrean jartzeko eta apirilaren 15etik ekainaren 15era borondatez kobratzeko iragarkia argitaratu zen ALHAOn (2020ko martxoaren 18an, 32. zk.).

2020ko apirilaren 15ean, Lehendakaritzaren Ebazpenaren bidez, eten egin ziren epe horiek, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuari jarraituz (COVID-19k eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko du errege dekretu horrek).

Ordutik, zenbait arau eman dituzte bai Estatuak, bai Arabako Foru Aldundiak, zerga arloan eragina dutenak, eta aipamen berezia merezi du COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko premiazko zerga neurriak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak (ALHAOn argitaratu zen 2020ko martxoaren 20an, 33. zk.) eta 3/2020 Foru Arauak baliozkotu zuen (2020ko martxoaren 27ko ALHAO, 36 zk.).

Lehen aipatutako dekretuak 2020ko ekainaren 1a ezartzen du zerga prozedurak hasteko edo amaitzeko data orokor gisa. Hori dela eta, Lehendakaritzaren 2020ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez aldatu egin dira Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zambranako udalerrietan hiri hondakinak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasaren errolda jendaurrean jartzeko epea eta tasa kobratzeko epea, 2020ko ekitaldiko lehen seihilekoari dagokiona.

Errolda horiek jendaurrean egongo dira hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Añanako Kuadrillaren egoitzan (Foruen plaza, 11 – 01213 Ribabellosa - Araba) aztertu ahal izango dute espedientea, 10:00etatik 13:00etara.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak kuadrillaren lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik zehaztutako epeetan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2020ko ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15ean bukatuko da, egun biak barne.

Tasaren ordainketa helbideratuta dutenei 2020ko uztailaren 3an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, interneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo dute udal bulegoek.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Añanako Kuadrillak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epean ordainketarik egin ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ribabellosa, 2020ko maiatzaren 26a

Lehendakaria

JAVIER URIARTE JAIRO